


Bergman, Ingmar



Cambiando una tendencia habitual, celebrar fechas de la muerte, parece que este año 2018, existe una cierta unanimidad a celebrar año de nacimiento, por ello 2018 se acuñado como **año Bergman** (100 años), y es que en la pequeña ciudad de Uppsala (+/- 160.000 hb), cerquita de Estocolmo hacia el norte (78 km) nació Ingmar Bergman (14/07/1918). A pesar de ser la cuarta ciudad de Suecia y denominarse 'ciudad universitaria', Ingmar se traslada a Estocolmo con 13 años a estudiar bachillerato, y de ahí a Letras e Historia del Arte.

El Fas no quería dejar escapar la ocasión para rendirle nuestro humilde homenaje en este año de Ingmar Bergman, en que se han vertido kilómetros de tinta y papel sobre su figura, por ello hemos programado **Saraband** (2003).

Casi entendemos una simbiosis entre Bergman y cineclub: En ese espíritu de investigar...Cineclub: nueva visión del cine (provocador e inconformista: vanguardias), análisis crítico para formar a 'un nuevo espectador' ante 'un nuevo arte' (7°). No podemos decir que Bergman fuese un 'revolucionario', pero sí nos enseña una nueva y personal manera de contar, y sobre todo nuevos temas y su tratamiento, que obligan al espectador a no perder detalle.

Guionista y director, primero de teatro y luego de cine, realizará sus primeros films en los 40, pero hasta 1970 no nos llegará al Fas (razones obvias: dictadura, censura religiosa, mala distribución, 'un idioma raro': el sueco -ni francés, ni inglés-, y un largo etc...). En noviembre de 1970 proyectamos **Sommaren med Monika / Un verano con Mónica** (1953), que recuperamos en junio de 2004 ('nuevo espectador'): juventud, trabajo y familia.

Ohiko joera bat aldatuz, hau da, heriotza datak ospatzearena, badirudi 2018. urte honetan adostasun moduko bat dagoela jaiotza urtea ospatzeko; hori dela eta, 2018. **urtea Bergmanena** ospatzeko urtea izango da; hain zuzen ere, orain 100 urte jaio zen Ingmar Bergman (1918/07/14), Suedian, Uppsalako hiri txikian, Stockholmetik 78 kilometro iparralderago. Suediako laugarren hiria izanagatik eta 'unibertsitate hiria' izendapena edukiagatik, Ingmar Stockholmera aldatu zen 13 urterekin, batxillergoa ikastera, eta handik gero, Letrak eta Artearen Historia ikasten hasi zen.

Fasek ez zuen aukera eskapatzen utzi nahi omenaldi txiki bat egiteko aurten Ingmar Bergmani; haren figuraren inguruan tinta kilometro asko isuri dira; hori dela eta, **Saraband** (2003) programatu dugu.

Sinbiosi gisa hartzen ditugu, edo sinonimo gisa, Bergman eta Zinekluba: Nabigatzeko izpiritu hori dela eta... Zinekluba: zinemaren ikusmira berri bat zabaltzen ari zela sortu zen (probokatzaila eta konformagaitza: abangoardiak), 'ikusle berria' arte berri batean' (7.) janzteko analisi kritikoa. Ezin esan dugu Bergman iraultzailea izan zenik, baina bai kontatzeko era berri eta pertsonal bat izan zuela eta, batez ere, gai berriak tratatu zituela zineman; horregatik, ikuslea behartuta dago xehetasunik ez galtzera.

Gidoilaria eta zuzendaria izan zen, lehenik antzerkian eta gero zineman. 40ko hamarkadan egin zuen lehen filma, baina 1970 arte ez zen iritsi Fas-era. Bistako arrazoiengatik: diktadura, zentsura erlijiosoa, banaketa kaxkarra, 'hizkuntz arraroa' —suediera (ez frantsesa, ez ingelesa)— eta beste hamaika arrazoi. 1970eko azaroan, **Sommaren med Monika / Uda Monikarekin** (1953) eman genuen, eta 2004ko ekainean berreskuratu genuen ('ikusle berria' 34 urte geroago): gazteria, lana eta familia.



Y cual filón descubierto, en diciembre de 1971, a modo de intensivo, proyectamos **Skammen / La vergüenza** (1968): guerra y cultura (música), **Persona** (1966), también recuperada en 2002:

enfermedad y superación, y **En passion / Pasión** (1969): aislamiento y desequilibrio.

En 1976, llegará el turno de **Viskningar och rop / Gritos y susurros** (1972), en dos sesiones para analizar aspectos temáticos (en primer lugar): muerte, agonía y recuerdos, y en segunda visión los aspectos técnicos.

En el 78 y 79 proyectamos **Scener ur ett ätenskap / Secretos de un matrimonio** (1973), **Trollfloöjten / La flauta mágica** (1975), y **Höstsonaten / Sonata de otoño** (1978).

Dos años después, en 1981 fue **Das Schlangenei / El huevo de la serpiente** (1977): años 20 (siglo XX), crisis, violencia y muerte (de nuevo).



Más espaciadamente llegó en 1988 **Fanny och Alexander / Fanny y Alexander** (1982): último legado cinematográfico-celuloide y compendio de 'su cine'.

La llama Bergman siempre está prendida en el cineclub, es y será un personaje 'actual' con un rosario de obras maestras, que incluso para los críticos resulta difícil elaborar preferencias. Un estilo propio (pausado, reflexivo y con calma) siempre profundizando en el ser humano y sus relaciones, que siempre deja huella. Siempre es un deleite volver a Bergman, sea o no sea su año.

Eta urre mea deskubritu bagenuen, 1971n, saio trinko gisa, honako hauek eman genituen: **Skammen / Lotsa** (1968): gerra eta kultura (musika); **Persona** (1966) —hau 2002an eman genuen berriz—: gaixotasuna eta hura gainditzeko grina; eta **En passion / Pasioa** (1969): bakardadea eta desoreka.

1976an, beste film bati iritsi zitzaion txanda, **Viskningar och rop filmari / Oihuak eta xuxurlak** (1972), bi saiotan, gaika analizatu ahal izateko (lehenengo): familia, heriotza, agonia eta oroitzapenak; eta, ondoren, alderdi teknikoak.

78an eta 79an, hiru film eman genituen, **Scener ur ett ätenskap / Ezkontz Eszenak** (1973), **Trollfloöjten / Txirula magikoa** (1975) eta **Höstsonaten / Udazkeneko sonata** (1978).



Handik bi urtera, 1981ean, **Das Schlangenei / Sugaren Arrautza** (1977): 20ko hamarkada (XX. mendea), krisia, bortizkeria eta heriotza (beste behin).

Mantsoago etorri zen 1988an **Fanny och Alexander / Fanny eta Alexander** (1982): haren azken ondare zinematografikoa eta bere lan egiteko moduaren erakusgarria.

Bergmanen izpiritua beti dago pindarretan zineklubean, eta beti izango da gaurkotasuna duen pertsonaia bat bere maisulan guztiekin; kritikariek ere nahiko lan izaten dute beren gogokoena zein den aukeratzeko. Estilo propioa zuen (patxatsua, gogoetazalea eta lasaia), eta arrastoa utzi du, gizakian eta haren harremanetan sakontzeko zerabilen 'lupagatik'. Beti da plazer bat Bergmanengana itzultzea, haren urtebetetzea bada eta ez bada.